

# **Futurologiak. Mugimendu feministaren bilakaera eta etorkizuna.**

## **Bizkaiko Emakume Asanblada (BEA)**

Nola pentsatu etorriko den feminismoa? Nolako bilakaera izango du presente dauden munduak egiten eta desagiten dituen mugimendu feminista honek? Zer gertatzen da hainbeste eskatzen digun antsietate feminista honekin eta feminismoarenganako eragiten dugun izuarekin?

Feminismoa, generoak bezala, bere burua eraldatuz doa jardun berri bakoitzean. Espora mutanteak bailitza, tokiz toki sortu, lekuz aldatu eta instalatzen da, esperientzia biziaren ezagutza kokatua eta jardulea emanez. Euskal Herrian izan duen bilakaera XX. mendeko azken hamarkadetako eta XXI. mendeko lehen hamarkadetako gertakizunetan topa dezakegu, mugimendu subjektu, auzokidea, mugak apurtzen dituzten aktibismo eta pentsamoldeen eragina jazoz eta inokulatuaz joan dena, mugak gainditu eta maila globaleko komunikazioetan artikulatu, nahastu eta kudeatu delarik.

## **Feminismoaren estandarizazioa**

Estatuak eta interes-talde garrantzitsuek gure garaietako historiaren bertsio jakin bat ofizialdu dute, eta horrek, bere esanahia ulertzen lagundu baino gehiago, zentzu politikoa kendu dio. Irudikapen horren arabera, emakumeak espazio garrantzitsu bat lortuko du Estatuaren kulturaren ez duelako mehatxurik eragingo, bere indar-ahalmena desaktibatuta izan denez gero. Egunez egun ikusten dugu emakumea biktima bezala aurkeztua izaten dela, eta gizarateak borroka feminista kontsumorako artikulua balitz bezala metabolizatu egiten duela.

Komunikabide masiboen eta kulturaren industriaren eraginez feminismoaren kontzientzia historikoa ordeztua izan da, feminismo sentsazioa sortzen duten keinuen bitartez. Edukina izatearen sentsazioa eragiten duten elementu diskurtsibo hutsak. Horrela, feminismo estandarizatua publikoak ezagutzeko moduko prozeduren erreperitorio hutsa izango da, zeinek kontzientzia astindu eta iraganarekiko harremana problematizatu beharrean, jardueraren feministan dagoela sinesteko nostalgian eta erosotasunean ezartzen duten, borrokarako grina baretuz. Feminista estandarrak pisu sintaktikoa kentzen die historikotasunaz edo adierazpeneko indarkeriaz kargatutako elementuei, eta hori egiten du kulturaren industrian nagusi diren irudikapen moduekin talka egin gabe. **Aitzitik, bere barnetik sortzen da, nahiz eta bere disidentzia aldarrikatu.**

*Emakume-biktimaren instituzionalizazioa* ailegaten ari gara, biktimen sufrimendua trauma soziala kudeatzeko funtsezko keinu gisa baloratzean oinarrituta (*adiskidetzaren ideologia lortzea beharrezkoa den parametroetatik*). Emakume-biktima, Estatuak sortzen duen

topagunea da, non eragindako sufrimenduan oinarritutako adostasun morala lortzen den (...). Hildako, torturatutako edo iraindutako biktima guztiak berdintzen dituen espazio bat, alegia, kaltea eragin zuen kausa eta testuingurua aintzat hartu gabe.

Bigarrenik, ikus-entzunezko esparruek, bere bizipenak kontatzen dituen bizirik ateratako pertsonaren irudia txertatu du, bere logikaren eta ekoizpen errutinen mende jartzeraino. Emakume-biktimaren estandarizazio hau, adiskidetzearen ideologia deiturikoari kulturalki lotutako feminista onarekin uztartzen da.

Borroka feminista guztien bizipena (emozionala, ez politikoa) deitu nahi duen eta borroka guztien berdintasuna (aukerak, ideiak, etikoak, politikoak...) feminismo orokor baten irudikapena sorreraren bidean goaz, eta horrek arrakasta kolektibo baten kontakizunean lausotzen gaitu, proiektu politiko izateari utziz eta diskurtso ideologiko hutsean bihurtuz.

### **Baina danak du genealogia bat**

Hastapenetik hasten bagara, iragan gertuko hastapen erlatibo batetik, 70eko hamarkadaren amaierako testuinguruan kokatuko gara, diktadura frankistaren aurkako borroka eta espetxeak betetzen zituzten hainbat preso politikoren amnistiak, Burgosko prozesuak eta borroka nazionalaren berpizkundearen harira politizatutako esparru batean.

Bestalde, 68ko iraultzan, nazioarte mailan hiru konfluentzia eman ziren, hau da, deskolonizazio prozesuen ustezko amaiera, gerra inperialisten aurkako borroka eta Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortutako ongizate estatuaren krisialdia.

Hain politizatuta dagoen panorama honetan, ekimen popular handiak hasiko dira, langileriarena, auzoko mugimendua eta baita mugimendu feminista ere.

Emakumeon Asanbladak Euskal Herriko mugimendu feministaren matrizea dira. Asanbladetak nukleoetatik EHko I. Jardunaldi Feministak antolatu ziren 1977an, lurralde guztietako erakunde feministak sorrerari bide emanez. Emakumeen erakundeek inguruan genituen diskurtso iraultzailetatik harago joan behar izan genuen, gure aldarrikapenekin emakumezkoen erakundeak sortzen bagenituen indar herrikoiak zatituko genituela esaten zutelako. Gure egitekoa borroka orokorrean laguntzea izan behar zuen, hura lortzearekin batera 'automatikoki' iraultza gauzatuko zelako.

Horregatik, guk subjektu iraultzaile berri bat eraiki behar izan genuen: feminismoa. Hizkera feminista komun berri bat sortu genuen. Geure buruari galdetzen ausartu ginen, *eta guk zer?* Elkarrekin geundelako egin ahal izan genuen. Subjektibotasun eta kolektibitate ariketa gauzatu genuen.

Mundua zalantzan jartzen hasi ginen, eta ez genekien gure genealogia propioa geneukanik Margarita Nelken, Lucia Sanchez Saornil, Ana Maria Segi, Isabel Oyarzabal, Maria de Maeztu, Clara Campoamor... Feminismoaren belaunaldiak suntsituak izan ziren eta ez

geneukan jakintza horretarako sarbiderik. Bizi izan ez genuenera ohitu behar izan genuen, ezagutza intuitibo eta arrazional batek bultzatzen gintuen orduan borrokan aritzera. Geroago Simone de Beauvoir, Nancy Fraser, Linda Nicholson, eta gero Angela Davis, Monica Witing eta Judit Butler-en ildoak jarraitu genituen.

Joera despatriarkal horrek pentsamendu propioa sortzera mugitu gintuen, iragan frankistaren gabezia guztiak zuzentzeko. Eta erakunde propioa sortzera bultzatu gintuen: emakumezkoen taldeak egin genituen, ez mistoak, funtzionamendu asanblearioa zutenak, hierarkizazio burokratikorik gabeak, bateratuak eta ideia sindikal eta politiko desberdinetako emakumeentzat irekiak izan zitezkenak. Horretarako, independente mantendu ginen ez bakarrik Estatuarekiko, baita erakunde, alderdi, sindikatu eta eliza guztiekiko ere.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, sistema patriarkalaren inguruan teorizatzen jarraitu genuen. Ikusi genuen genero kontrolerako ereduetan sozializatuta geundela, zehazki sistema kapitalistaren sexu-zaintzan. Mugimendu burgesa eta klaseartekoa izatea leporatzen ziguten mugimendu iraultzaileekin arazoak izan genituen. Guk uste genuen feminismoak jatorri desberdinetako emakumeak batu zitzaizkela, ez sistema edo familia mantentzeko, baizik eta genero elkartasunaren bidez eraldatzeko.

Eskubide falta absolutuaren aurrean, lehen aldarrikapenetako asko oinarritzkoak izan ziren: norberaren gorputzerako eta amatasunerako eskubidea eta autonomia ekonomikorako eskubidea. Dibortzioaren eskubidearen, aborto aske eta dohakoaren eta baita antisorgailuen erabilpenaren alde borrokatu genuen. Soldaten eta lan balditzen berdintasunaren alde. **Sexualitatearen arloan, pribatua publikoa dela errealitate bihurtu nahi izan genuen.**

Lesbiana feministen eta feminista lesbianen kolektiboek (mugimendu feministarekin zuten harremanaren arabera, asanbladetako parte baziren ala ez) heteropatriarkatuaren kontzeptua eta lesbianismoaren kontzeptua (lesbianismoaren politizazioa) plazaratu zituzten. Sexu harremanen, afektuen eta zainketen eredu berriei buruz hitz egiten genuen, eta sexu harreman koital heterosexualen derrigorrezko eredu bakarraren desmitifikazioa lortzen saiatu ginen. Hauek, mugimendu feministaren arrakastak eta konkistak izan ziren. Metodo antisorgailuak eta "abortuaren" eta dibortzioaren aldeko borrokek toki garrantzitsua hartu zuten borroka feministaren baitan. Emakume izateko emazte edo ama izan behar ez izatea zen helburua.

**Prozesu luze baten ostean berdintasunaren edo desberdintasunaren inguruko eztabaida sortu zen.** Feminismoa eskubide berdintasuna lortzeko borroka bat baino gehiago da, feminismoa beste mundu bat lortzeko borrokan kontzientzia hartzeko tresna da.

80ko hamarkadan zehar ideologia handiek krisialdi batetik pasa ziren, horrek ideologia sistemaren aurkako joerazko ideologia guztiak ahuldu zituelarik. Borroka iraultzaileak eta feminismoak ospe ona galdu zuten. Demokrazia lortu zenez gero, 78tik aurrera protestatzea beharrezkoa ez izatearen sinismena zabaldu zen eta, botere indarren aldetik, borroka

eragozteko politika martxan jarri zituzten, ahaztu nahi den iraganeko elementua balitz bezala. *Desenkantua* deritzon depresio orokor bat zabaldu zen. Desenkantua deituriko eskizofrenia sozial kapitalista, hain zuzen ere.

Feminismoak modan egoteari utzi zion, dagoeneko ez zen beharrezkoa, helburuak erakundeen baitan lortuko zirenaren ustea bait zegoen.

80ko hamarkadan emakumearen institutuak sortu ziren, Emakunde Erakunde Autonomoa, hala nola, udaletako emakumearen sailak, honek mugimendu feministaren desaktibazio garai bati hasiera emango diolarik. Kapitalismoak borroka desaktibatzen zuen kultura sortu zuen: denak bat egiten zuen instituzionalizazioan. Kontsumoa eta estetika kontzeptu iraultzaile gisa nagusitu ziren, eta demokrazia, berriz, kontsumitzeko askatasuna zen, biziraupenerako funtsezkoak ez ziren eta gizarte-talde baten barruan estatus eta prestigioa ematen zuten ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko askatasuna.

Non kokatuko da mugimendu feminista beste mugimendu sozial batzuekin koordinazioan testuinguru berri honetan?

Oraindik ere zailtasunak zeuden indarkeria politikoa (borroka armatuak, gerrak ...) eta indarkeria sexista bereizteko, biktimen hierarkiarik eragin gabe. 2016ko “manadaren” kasuren baitan gertatutako indarkeriei erantzun sozial handia eman zitzaion, justizia feminista ezartzeko aldarrikapena egin zelarik. Berez, feminismoak badu bere ardatz politikoen artean sexu-indarkeria eta emakumeen gorputzaren gaineko indarkeria ororen aurkako salaketa, **esparru publikoan gauzatzen diren indarkeriak salatzea eremu pribatuan gertatzen direnak salatzea baino errazgoa dela jakinik.**

Mugimendu Feministak bultzada berri bat jaso zuen hainbat arrazoirengatik, besteak beste, martxoaren 8ko grebak. Faktore horien ostean, berriz ere politizatuta egongo dira bai gazteen mugimenduak, hala nola lan arlo ezberdinak (egoitzetako langileak, etxez etxeko laguntzarakoak, garbiketakoak), orain arte negoziazioen eta aldarrikapenen panorama sindikalean ahaztuta egon zirenak, mareetan eta pentsiodunen mugimenduan.

Feminismoaren lehen eta bigarren belaunaldiak oso politizatuta geunden diktaduraren aurka. Hirugarrena eta laugarrena aldiz, berdintasunaren diskurtsoarekin jaio dira.

### **Martxoaren 8an**

Bere garaian, Euskal Herriko Mugimendu Feministak M8a emakume langilearen egun deitzeari utzi zion emakumeen eguna izendapenez ordezkatzeko: emakumeok egiten dituzten eta gizartearentzat beharrezkoak diren lan ikusteaz gain hain zuzen ere.

Martxoaren 8ko greba orokorra Argentinako “ni una menos” mugimendutik abiatuta zetorren, azaroaren 25ekoa Latinamerikatik poposatua izan zen bezala, hala nola, Ikusgarritasun Lesbikoaren Eguna.

Euskal Herrian langileriaren greba orokorretan parte hartzearen esperientziak genituen, horietan piketeak eginez eta leihuetan amantalak zintzilikatuz parte hartuz. Guk 2017ko

martxoaren 8ko greba eragin genuen, Bilboko koordinadora feministaren bitartez, zeinak oihartzun mugatua izan zuen; 2018 eta 2019koek izan dute oihartzun gehien.

**Oso garrantzitsutzat jotzen dugu martxoaren 8ko greba-deialdi horiek erakundeen deialditik kanpo egin izana**, feminismoak bere kabuz bultzatuta eta sortuta. Pentsatzen dugu M8an koordinazioa izan dela gakoa MFri greba eguna deitzeko autoritatea eskuratzeko. Auzo eta herrietako deszentralizazioa beharrezko esperientzia izan da, dinamizazioa, hedapena eta deshierarkizazioa ekarri diguna.

### **Futurologia: feminismoaren olatu berria?**

8m-ko fenomeno masibotik abiatuta, feminismoaren nazioarteko olatu berri bati buruz hitz egiten da. Zer dakarkigu olatu honek?

Une honetan, eztabaida feministak hainbat korrante edo feminismoengan sostengatzen da: arrazismoaren aurkakoa, ekofeminismoa, antimilitarismoa, sindikalismoak, transfeminismoa, internazionalismoa... Esan genezake mugimendu feminista dela, bere izaera konplexu eta anitzean, emakumeon egungo borroka nagusiak lideratzen dituen. Gaur egun feminismoa mugimendu iraultzailetzat har daiteke, iraultzaren kontzeptua alde batera utzi ez duena, ezta sistema aldatzeko beharra ere; esan daiteke beraz, alternatiba politikoa dela.

Alderdi politikoetako emakumeoi eta sindikalistei, hala nola GKE-ei erakunde feminista ez-misto autonomoak balio zaizkie erakunde mistoen inguruko eztabaida sortu eta beraien jomugak radikalizatzeko. Horregatik da hain garrantzitsua erakunde feministen eta emakumeen erakundeen arteko koordinazioa, **koordinazio horretan datza eta eztabaidak bateratzen dituen arragoa.**

Mugimendu feministen eta emakumeen susperraldia gertatu da. Emakume asko batu dira olatu berri honetan, ez bakarrik banaka inplikatzeko direnak, baizik eta egunerokotasunean lanean hasten direnak, beraien artean antolatzen, hau etorkizunerako erronka bat delarik. Erronka handia da antolatzen jarraitzea, feminismoaren baitan dauden korrante guztiak batzea hain zaila izanik, dela ikuspegi dekoloniala, internazionalista, ekologista, etab. Koordinazioak bat egiten dugun arloetan aliantza puntualak egiteko balio digu, hala nola, gure ideiak taldeen multzoari helarazteko.

Feminismoa, bere gorabeheretan, espazioarekin eta denborarekin estuki lotuta dago. Gaur egun, urrats bakoitzean sinergiek, aliantzek, enpatiek eta premiek gizarte sektore ezberdinak biltzen dituztela begiratzen da eten gabe. Bai maila globalean zein lokalean. Informazioaren bat-batekotasunak eragin zuzena izan du mugimenduaren ikusgarritasunean, kohesioan eta baita eragingarritasunean ere.

Feminismoa beste bizimodu bat da. Ezin da nagusiaren etxea akatu nagusiaren tresnekin, zioen Audre Lordek. Nagusiaren armak deuseztu behar ditugu: bidegabekeria eta esklabotza. Hedatze uhina aprobetxatu beharra dago beste hainbeste lekutatik interpelatzen ari diren bizi parametroak iraultzeko. Baina badakigu ezer ez dela hamankomuna ezta sistemikoa ere, ezinezkoa da praktikatu ez den zerbait sozialki inposatzea. Bilakaera oro sustraituta dago pertsonen eremuan, kalean, ezerk ez du zilegitasunik guk aurretik ez badugu frogatu, fenomeno ebolutibo guztiak eremu honetan errotuta daudelarik. Gaur egun kalean egiten

diren berrikuntza, iraultza eta errebultsibo askok ez dute oihartzunik izango, guztiek ez dute zorte onik izango, etorkizunik gabeko berrikuntzak bait daude. Aldaketa sistemikoak ekitaldiaren sorkuntzen zati txiki bat baino ez du onartzen, baina irauten dutenak nahiko ugariak dira, garai batetik bestera ikusi ahal izateko beraien baturak paradigma eta mundu berriak ekar ditzazketela.

Sistema ere mehatxatua izaten ari da etengabe bere arauaren aurkako ekintza anitzak gauzatzen direlarik. Sistemaren ekintza zalantza, tanteo eta hurbilketa amaigabeek zeharkatzen dute. Ez dago unerik zeinetan sistema erabat finkatuta dagoen.

Sistema baten egitura etengabe aldatzen duten indar guztien lankidetzaren eraginkorra eboluzioaren edo iraultzaren faktore boteretsua dira. Indar horiek zeharkakoak, transindibidualak, transnazionalak dira, eta baita nazioan zein maila lokalean kokatuak.

### Eztabaidarako galderak:

- Nolakoa izango da mugimendu feminista Euskal Herrian? Nazioartean? Mistoa? CIS?
- Mugimendu sozial edo politiko baten isla gara ala talde motor bat gara?
- Zein zirkulu sozialetan mugitzen gara?
- Euskal EMk bere burua sortzen du ala EH gaingaitzen du?
- Zer litzateke euskal estatu feminista bat? Hau sortzeaz gain, beste zerbaitek lortu nahi al da? Ala gizarte ezberdin baten alde borrokatzen ari gara?
- Beste herri mugimendu sozialekin koordinatu behar ote dugu? Nola egin dezakegu? Mugimendu horietako emakumeekin aliantzak sortuz ala mugimendu horien parte izanda? Militantzia bikoitza izango litzateke berriro ere?

Zer gertatu da gizartean aldarrikapen feministaren kopuru, intentsitate eta globalizazio lokalari dagokionez hain aldaketa nabariak egoteko? Zergatik igaro da feminismoa debekatua eta gaizki ikusia egotetik, emakume talde txiki baten aldarrikapena izatetik indize mediatikoak lortzera?

Zergatik pasatu da iraganeko estigma izatetik modernitate ikur bihurtzera? Sare sozial berriek sortutako dei efektuagatik bakarrik ote da? Eta zehazki zer esan nahi du honek ere?

Bat batekotasanak hausnarketarik gabeko atxikimendua ere eragin dezake, hau da, feminismoa jantzi nahi dudana jantzia balitz bezela, eskuratzen dut, modan dagoelako. Feminismoa klaseko feminismoa baino ezin da izan, klasearen esanahiaren zentzuan, baina hau gaingaituz iraultza askoz gehiago biltzen dituena. Borroka feministak bere baitan hartzen du klase-borroka, beste borroka batzuekin batera. Feminismoa, beraz, kontraesan historikoak gaingaitu eta gizarte berriak sortzeko gai den alternatiba sozial gisa azaleratu daiteke.

Nola gaingaitu eredu hauek? Nola ekidin mugimendua, beren intereserako atrofian edo esklerotizatuko duten alderdiek erabil dezaten? Zer diote mugimendu dekolonialek? Nola egin daiteke estatua eta nola desegin Estatua?

Kontzientzia feministak zalantzan jar ditzake egon diren eta gaur egun dauden jakintza eta botere guztiak, horiek guztiak emakumearen ezabaketan oinarritzen direlako. Orduan, guztiok dugu zalantzan jartzeko eskubidea, eta sozialki maila guztietan esku hartzeko eskubidea. Borrokarako deia da, edozein modutara ere.